



**2013KO ABENDUAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko abenduaren hogeita seian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Andoitz Garmendia Zubeldia, Patxi Albisu Estensoro eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko azaroaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 12. ETA 13. OBRA-EGIAZTAGIRIAK.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 12. eta 13. obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Lanen 12. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMOtakoa ===== (163.232,86 €) da eta 13. obra-egiaztagiriarena berriz BERREHUN ETA BERROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMOtakoa (241.781,36 €). Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen 12. eta 13. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.



IV.- LAZKAO LANTZEN S.A.REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2013-10-18AN HARTU-TAKO AKORDIOAREN AURKA CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.K AURKEZTUTAKO GORAJOTZEKO ERREKURTSOA.-

Construcciones Amenabar S.A.k Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkuraren aurrean gora jotzeko errekurtsoa jarri du, Lazkao Lantzen S.A. udal elkartearen Administrazio Kontseiluek, 2013ko urriaren 18an egindako bilkuran, Iturgaitzagako 14 L.E.an 44 etxebizitzako bizitegi eraikina eraikitzeko kontratazio espedientearen barruan Construcciones Amenabar S.A.k ekonomi proposamenen irekitzearen inguruko zehaztasunei buruz 2013ko irailaren 19an aurkeztutako idatziaren aurrean hartutako akordioaren aurka.

Errekurtsio honen aurrean txosten juridikoa egin da.

Halaber Kontratazio Mahaiak eta Lazkao Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluek, errekurtsio hau aztertu ondoren, beraiei dagozkien gaietan errekurtsioa ezezteko proposamena onartu dute.

Guzti hau horrela, errekurtsioa aztertu ondoren, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, txosten juridikoan emandako arrazoietan oinarrituta, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Orain egindako errekurtsioa aurretik kontratuaren esleipenaren aurka egindako gora jotzeko beste errekurtsioari pilatzeko eskaria ez onartzea, hura espreski ebatzia izan zelako.

2.- LAZKAO LANTZEN, S.A. Administrazio Kontseiluek 2013ko urriaren 18ko bileran hartutako erabakiaren aurka Construcciones Amenabar S.A.k jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezeatea.

3.- Errekurritzailea den merkataritzari, kontratuaren esleipen akordioa administrazio bidean bertan behera uzteko eskaria, Udal Osoko Bilkurak 2013 azaroaren 28an egindako bilkuran ez onartzeko akordioa hartu zuela, jakinaraztea.

V.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN ESPE-DIENTEA.-

Udalaren 2013ko aurrekontuko kreditu transferentzia bidezko kreditu aldaketa espedientea ikusirik.

Idazkari-Kontuhartzaileak luzatutako aldeko txostena eta espedientearen egindako gainerako jarduketak ikusi ondoren, eta Ogasun Batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehenik.- Lazkaoko Udal honen Aurrekontuari dagokion eta proposamenaren zereendatzen diren gastuen aurrekontuko partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:



Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak

(bajak)

Kap.	Izendapena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	258.917,19	73.500,00	185.417,19
GUZTIRA		258.917,19	73.500,00	185.417,19

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak

(altak)

Kap.	Izendapena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	Pertsonaleko gastuak	21.000,00	72.000,00	93.000,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	500,00	1.500,00	2.000,00
GUZTIRA		21.500,00	73.500,00	95.000,00

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa den ezker, bidezkoa da onetsitako aldaketa Fondoan Kontuhartzailtza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten, Gastuetan zein Sarreretan.

VI.- 2014KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2014 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Goenaga zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidente gisa, onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du oso denbora gutxi eskeini zaiola aurrekontu honen lanketa egiteko. Esaten du baita ere aurrekontu honen atzean C.A.F.en ekarpena izan ez balitz defizitarioa litzakela eta horrek kezkatu egin dituztela. Esaten du baita ere talde ezberdinen arteko komunikazioa falta dela. Esaten du baita ere gastuetako hainbat partidetan gehikuntzak egin direla eta horiek, ez-ohiko igoerak ez badira behintzat datozen urtean aurrekontua orekatzeko nahiko arazoak izango direla. Esaten du baita ere lan



sustapenerako dirua badagoela baina herriko autonomoentzat laguntza eskatzen dutela. Eta bukatzen du esanez guzti horregatik aurrekontuari ezezkoa emango diotela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontu hauek aurreko aurrekontuen jarraipena adierazten dutela. Esaten du baita ere planifikaziorik eta inolako analisiarik ez dagoela eta guzti horregatik ezezkoa emango diola aurrekontuari.

Alkateak esaten du beraien ustez herriko eragileen aldeko neurriak hartzen dituztela eta esaten du baita ere bileretan proposamenak hel araztea eskertuko luketela, komunikazioa bi aldetakoa izan behar duela eta ez alde bakarrarena.

Guzti honen ondoren, eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko sei botu (Bildu) eta aurkako lau botuz (EAJ, PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2014 urterako udal aurrekontua hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2014KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.316.100,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	35.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.305.100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.181.944,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	130.350,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	333.200,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	3.540,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			6.306.234,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.410.900,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.458.569,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	80.725,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	619.540,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	81.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	127.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	528.000,00 €
GASTUAK GUZTIRA			6.306.234,00 €



2014KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	460.682,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.250.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			1.710.682,00 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	108.542,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	90.966,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.511.174,00 €
GASTUAK GUZTIRA			1.710.682,00 €

2014KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.316.100,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	35.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.305.100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.181.944,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	130.350,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	793.882,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	3.540,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.250.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			8.016.916,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.410.900,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.567.111,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	171.691,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	619.540,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.592.174,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	127.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	528.000,00 €
GASTUAK GUZTIRA			8.016.916,00 €



Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VII.- 2014KO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2014ko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2014ko Lazkaoko Udalaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortzirik eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, written over the official seal. The signature is stylized and appears to be the name of the Mayor or the official responsible for the document.